

**MARKINA-XEMEINGO KARMELDARRAK  
ETA EUSKAL KULTURA  
(1868-2018)**

Aurreko artikuluan ikusi dugunez, Karmengo Ordenaren Errestauraziorako egin ziren lan neketsu, luze eta gaitzak gainturik, Markinan eman zitzaion Errestaurazio horri hasiera protagonista batzuen bidez: A. Domingo San Joserena (Arbizu), A. Manuel Santa Teresarena (Elosegi), A. Pedro Jose Jesus Mariarena (Alkorta), A. Migel Hirutasunarena (Kalle Bengoa), eta Candido Gaytán de Ayala, Villafrancako kondea izan ziren misioetarako zen ikastetxea Markinako Karmenen fundatu zutenak; horrela, hasiera indartsu baten bidez sortu zen Ordenaren Errestaurazioa penintsula guztirako; eliz espirituzko eta kultura-mugimendu berri batek arnasa berria hartu zuen.

Markinako Karmengo fundazioak eta komentuko bizimoduak hiru mendetan zehar izandako garrantzia ez datza bakarrik gizarte, erlijio edo moral arloan eginiko eraginean eta betebeharrean; herriaren bizitzari barne-barnetik loturik izan ohi den kultura-bizitzan, gure kasuan, zehazkiago esanda, euskararen arloan ere nabaritzen da.

Azken gai hau erabiliko dugu idazlan honetan, batez ere “errestaurazio” (1868) osteko denboran gertatutakoa, baina oso labur izan beharko du. Argi ikusiko da komentu honetan izan den jarduera kulturala. Oinarria, lehenengo eta behin, etxean bertan gazteei emandako hezkuntza espiritualetan eta kulturalean ikusten dugu, haietako hainbat gizon ospetsu bihurtu ziren santitatean, gobernuan eta letretan.

## I. FORMAKUNTZA-ETXEA, ETA PERTSONA AIPAGARRIAK

Markinako Karmengo etxea, 1868an hasita, Euskal Herriari, Espainiari, Amerikari, Indiari eta abarri dagokienean, berezarpren iturburu eta zabalguneez izan delako, oihartzun handikoa izan da; horrela, euskarari dagokion kultura arloan ere, fruitu ugari ekarri izan dituela Euskal Herri barruan esan behar. Eta, beraren ingurumari hurbilera, Markina-Xemeingo hirira begiratuz ere, Karmengo etxea, hainbat jardueraren bidez, euskal kulturaren benetako eskola izan dela ikusi ahal izango dugu.

### *Nobizio-etxea eta profesadunena*

Markinako komentuan, 1868ko abuztuan, Ordenaren berezartzea gauzatu zenean, bertan ezarri zen ofizialki “Errestaurazio”ko lehen nobizio-etxea. 1869an sartu ziren zortzi gazteek nobizio aldia amaitu zutenean, komentu horretan bertan hasi zituzten Filosofiako ikasketak. Irakasle izateko Frantziatik etorri zen A. Tomas Alkorta, herriko semea. Komentu berean Teologia ere irakastera pasatu zen gero eta A. Paulo Uriarte ekarri zuten. 1878an Burgosera aldatu zuten Filosofiako ikastetxea eta Markina Teologiako ikasketak egiteko utzi zuten.

Edozein kultura-bizitza eta jardueratan, ikasketak egiteko zentroak oso gune garrantzitsuak izan ohi dira. Halakoek berez ekartzen dituztelako ikasle-irakasleen arteko harreman aberasgarriak, bibliotekaren ugalketa, indartuz joan ohi den giro intelektuala etab. Eta horretan herriak ere, zuzenean nahiz zeharka, parte izaten du.

Markinako Karmengo ikastetxea izan zenaren historian barruko une interesgarri batzuk aipatuko ditugu: hala, nobizio-etxea (1869-1876), filosofiako ikastetxea (1871-1885, 1896-1898), teologiakoa (1874-1888, 1893-1894, 1937-1946) eta humanistika edo batxilergoko azken ikasturterako ikastetxea

1911-1915. urteen artean eta data hori baino lehenagoko urteetan zein 1948-1968 artean (1954-1956. urtean izan ezik).

Historian zeharreko unerik larrienean ere (etxea, esklastrazio dekretuaren eraginez, komunitaterik gabe geratu zenean), Karmengo etxea, udalaren erabakiz, aldi handi batean zehar herriko umeentzako eskola bihurtuta ageri zaigu.

Atal honetan Markinako Karmengo etxean heziketa hartu zuten eta bertan bizi izan ziren euskal idazle ospetsuenak gogoratuko ditugu. Horrela ikusi izango dugu zer nolako eragina izan duten Aita karmeldarrek historian zehar euskara arloan, bertan euskararen benetako klasikoak edota beraren ezagutzan jakitsuak izandakoak aurkituko baititugu.

Hasiera honetan aipatu nahi ditugu santutasunean, Ordenaren **gubernuan**, eliz **karguetan**, **misiotan**, eta abarretan gailendu direnak; gehienak Markinako nobizio-etxean edo ikaste-txean urte bat edo gehiago bizi izan zirenak, batzuk urteetan Markinan bizi izan zirenak.

## 1. *Santutasunean*

Santutasunean gora egin zutenen artean, bi aipatuko ditugu:

- a. A. Joan Bizente Jesus Mariarena (Joan Bizente Zengotita-Bengoa, 1862-1943), hainbat etapa zehatzek markatua: 1) 15 urte Ordenaren eta Elizaren zerbitzuan (1885-1900), 2) 17 urte misiolari Indian (1900-1917), “La Obra Máxima” misio-aldizkaria sortu zuen eta beraren zuzendari izan zen.
- d. A. Zakarias Santa Teresarena (Zakarias Saltarain Bizkarra, 1887-1957), hau ere misiolaria eta misiolarien hezitzailea, eta teologia- eta filosofia-gaietako idazle handia batez ere induismo-gaietakoa. Santu hotsean hil zen; Indiako apaizek batez ere benerazio handia diote.

## **2. *Misioetako Eliz kargudun Karmeldarrak***

Markinako kolegioa misioetarako zabaldu zen: Euskal Herriko karmeldar asko Indiara, Amerikara etab. bidaliak izan ziren, eta, egin-eginean ere, Aulki Santuak nahi izan zuen elizbarruti sortu berrien zuzendaritza Karmeldar Prefektu Apostolikoen eta Gotzainen esku izatea.

- a. Bernardo Jesusena (Felipe Arginzoniz Astobiza, 1852-1933), Zornotzako (Bizkaia) semea, Verapoly-ko artzapezikua.
- b. Valentin Jasokundekoa (Manuel Zubizarreta Unamunzaga, 1862-1948), Etxebarriko (Markinako merindadea, Bizkaia) semea, idazlea eta teologoa, Camegüey-ko apezpikua eta Kubako Santiagoko artzapezikua.
- c. Severino Santa Teresarena (Eustakio Antonio Agirrebeitia Arriaga, 1885-1962), Berrizko (Bizkaia) semea, idazlea eta misiolaria Uraban (Kolonbia), Urabako Prefektu Apostolikoa.
- d. Wenceslao Sakramentu Santuarena (Manuel Gomez Frande, 1900-1968), Santanderko semea, Sucumbios-ko San Migel-eko (Ekuador) Prefektu Apostolikoa.
- e. Anbrosio Karmengo Amarena (Joan Abasolo Lekue, 1904-1982), Zornotzako (Bizkaia) semea, Vijayapuram-go (India) Gotzaina.
- f. Luis Santa Teresatxorena (Frantzisko Irizar Salazar, 1906-1965), Ormaiztegiko (Gipuzkoa) semea, misiolaria izan zen Uraban (Kolonbia); geroago Tumakora joan zen eta hango Prefektu Apostolikoa eta Bikario Apostolikoa izan zen.
- g. Viktor Santa Teresarena (Leon Esteban San Migel Erce, 1904-1995), Lekeitioko (Bizkaia) semea, idazle eta soziologoa, irakaslea eta ekonomoa Alwaye-ko (India) Seminario handian, Bikario Apostolikoa Kuwaiten (1966-1982).

## **3. *Kargudunak***

Euskal Herriko Probintzian “errestaurazio” garaia izan da bere historiako arorik garrantzitsuena, eta izan ditu gobernuko

gizon jatorrak, eta badira Ordena osoaren barruan kargurik handienak izan dituztenak, hau da, Ordena guztiko buru edo jenerak izan direnak; hemen aipatzen ditugu batzuk:

1. Lehen aipatutako Domingo San Joserena (1799-1870), Garesko (Nafarroa) semea, Frantzian eta Espainian “errestaurazioa” hasi zuena, eta Pio IX.a Aita Santuak bihotzez maite zuena.
2. Ezekiel Jesusen Bihotzarena (Ezekiel Bilbao Imaz, 1862-1938), Zornotzako (Bizkaia) semea, irakaslea, teologoa eta idazlea; bost aldiz Nafarroako Probintziako Probintziala eta behin Ordenako Jenerala izan zena.
3. Migel Anjel San Joserena (Migel Batiz Bilbao, 1916-2003), Markinako (Bizkaia) semea; Alwaye-ko (India, 1956-1967) Seminarioko errektore izan zena; Ordenako Jenerala (1967-1973).
4. Luis Arostegi Ganboa (1939-), Gatikako (Bizkaia) semea, oraintsu, Ordenako Jeneral (2004-2010), eta Euskal Herriko karmeldarren Probintzial lau bider.

#### **4. Misiolari goragarriak**

Malabarren beren bizitzaren zati bat edo bizitza osoa eskaini zuten 112 misiolari baino gehiagoren artetik, gutxi batzuk aukeratzea lan zaila da. Goian aipatu ditugun prelatuez, eta A. Joan Bizente eta A. Zakariatz Jainkoaren Zerbitzariak gainera, Nafarroako edo Euskal Herriko Probintziaren ordezkari legez, zenbait misiolari bilduko ditugu (Markinako komentuz zerikusia dutenak), Indiako misioen historian karmeldarren presentzia adierazgarria izan dutenak.

- a. Domingo Hirutasun Santuarena (Sarasua Garate, 1852-1925), Markinako semea, Quilon-en eta Verapoly-n lehenengo lau hamarkadetan merezimendu handienetako misiolaria.

- b. Alfontso Maria Aingeruena (Urkiola, 1854-1916), Markinako semea, bere bizitzan santu fama handia izan zuena.
- c. Joan Damasceno Karmengo Amarena (Izagirre, 1870-1955), Zornotzako semea, XX. mendeko misiolari handietakoa dugu, apostolu-fitxan bataiorik gehien dituen. Berrogeita hamar urte egin zituen misiolari. Gizon laulaua eta tolesgabea, errukiz betea eta Espiritu Santuaren indarrean fede itsua zuena; A. Joan Damasceno, misiolari-lanean erabiltzen zituen metodoei dagokienez, Xabierko Frantzisko santuaren antzekoa zen. Markinan hil zan (1955).
- d. Ligorio Karmengo Amarena (Basagoiti Villa, 1873-1951), Zornotzako semea; 50 urteko bizitza misioari zintzotasun eta alaitasunez emana.
- e. Diego Santa Teresarena (Zabala Elu, 1882-1976), Markinako semea (Bizkaia); bizitza oso eta luzea, hil arte, 69 urte Malabarren.
- f. Felicísimo Familia Santuarena (Felicísimo Orue Bilbao, 1910-2000), Morgako semea (Bizkaia); Nafarroako San Joakim Probintziako 112 misiolari baino gehiagoren artean azkenekoa izan da bera, Malabarko misioei bere indarrak eta bizi osoa eskaini dizkiona. 69 urte luze bertan eta jaioterrira itzuli gabe. Ziur asko, aro berriko misioen historian inork gaingitu gabeko marka izan daiteke.

### ***5. Predikuak eta predikariak “Errestaurazio” ondoren (1868)***

Ezin ditugu aipatu gabe utzi denbora zaharreko Markinako predikari aipagarri bi A. Migel San Frantziskorena, eta batez ere Frai Bartolome Santa Teresa.

Baina “Errestaurazio” ondoren (1868), predikuak egitea duintasunez egin zezaketen guztien zeregina izatera etorri zen. Ongi ezagutzen ditugu XIX. mendearen amaierako eta

XX. mendearen hasierako predikari handiak. Haietako gutxi batzuk aipatuko ditut.

Fundatzaileen artean (Pedro Jose Jesus Mariarena, Manuel Santa Teresarena, Migel Hirutasun Santuarena) harrigarria da haien apostolu-garra. A. Pedro Joserren gutunetan etengabe ageri da apostolutzaren helburua eta nahia, “arimen ona”<sup>6</sup>, beste horrenbeste sumatzen da A. Migelen gutunetan<sup>7</sup>, eta are gehiago A. Manuelenetan<sup>8</sup>. Hauek “Errestaurazio” ondorengo Karmeldarren lehen belaunaldiaren nagusi eta hezitzaileak ziren.

Predikatzeke, gogo-jardunak eta herri-misioak emateko ekintza bizi-bizia zen “Errestaurazio” hasiera hartan<sup>9</sup>, eta hau, egoera sozio-politiko zaila eta pertsona gutxi zirela.

Euskarazko predikuetan hauek gailendu ziren: A. Jeronimo Andre Mariarena (Garaigoitia Agirre, 1846-1921), A. Andres Jesusen Bihotzarena (Arrieta, 1854-1923), A. Tirso Jesus Mariarena (Erdoiza Arizmendi, 1878-1956), A. Martin Mariaren Bihotz Guztiz Garbiarena (Uriarte Odriozola, 1879-1960), A. Florentzio Mariaren Bihotz Guztiz Garbiarena (Gortazar Intxaurbe, 1882-1963), A. Apolinar San Joserena (Ibaibarriaga Oregi, 1882-1946), A. Leontzio (Lontzi) San Joan Gurutzekorena (Ormaetxea Aldana, 1891-1949), A. Rafael San Joserena (Urionaguena Garro, 1890-1975); A. Jenaro Familia Santuarena (Laruskain Olalde, 1914-1988), A. Jose Luis Karmengo Amarena (Beobide Olibares, 1920-2000), etab.

<sup>6</sup> *Reimplantación...*, doc. 546 (1871-X-22), doc. 832 (1875-II-1), doc. 1053 (1876-X-31).

<sup>7</sup> *Reimplantación...*, doc. 791 (1874-X-18), doc. 1101.

<sup>8</sup> *Reimplantación...*, doc. 513 (1871-V-23); doc. 434 (1874-I-9); doc. 1130 (1877-IV-28); doc. 1355 (1879-XI-2); doc. 1381 (1880-I-24).

<sup>9</sup> *Reimplantación...*, doc. 253 (1868-XII-18); doc. 257 (1869-I-5), doc. 1262 (1878-X-12), doc. 256 (1868-XII-30), doc. 774 (1874-I-14), doc. 880 (1875-IX-30), doc. 1130 (1877-IX-28), doc. 1163 (1877-X-13), doc. 1188 (1877-XII-30), doc. 1397 (1880-IV-14), doc. 1219 (1878-IV-25), doc. 1300 (1879-III-13), doc. 1570 (1882-II-23), etc.

## 6. *Zientzia eta arteetan gailendu diren Karmeldarrak*

Geure historia gogoratzean, ohartzen gara hainbat erlijioso izan zirela lan akademiko nahiz zientifiko eta artistikoetan gailendu zirenak; gehienak arlo teologiko eta espiritualean, baina ez dira falta filosofo, historialari, literato, musikari, trazatzaile, artista eta abar ere.

## II. KARMELDARREN KULTURA-JARDUERA AZKEN HAMARKADETAN

Euskal Herriko karmeldarren Probintziako zenbait komentutan kultura-ekintzak burutu dira, batez ere euskal kulturaren eta euskararen zerbitzurako: garai latzetan ikastolak sortzeko bi komentuk emandako laguntza gogoratu behar dugu: 1964an Markina-Xemeingo komentuak “Zerutxu Ikastola” sortzen lagundu zuen (“Zerutxu. Hogar infantil Padre Cecilio”). Markina-Xemeingo karmeldarren eraginez, bertsolarien urteroko bilerak egin izan dira 1963tik 1977ra bitartean; liburu-bildumak ere sortu dira (*Karmel-lekukoak*, *Vasconia Sacra*, eta *Karmel-Sorta*), etab.

### 1. **Kultura euskaraz**

Karmengo etxean bizi izan edo heziketa hartutakoen artean euskal idazleak aipatuko ditugu: eurak agertzen dira euskal kultura arloan burututako bizimoduaren ezaugarri.

#### a. *Bizimodua euskaraz*

Hiru mendetako historian zehar bertako komunitatea ez da egon euskaldun hutsez bakarrik osatua. Horrek eragina zuen eguneroko bizimoduan, gazteleraren erabilera ere nahitaezko bihurtzen zuelako; hala ere, beti izan da, bertan sermolari euskaldunak edukitzeko ardura bizia.

Azken hamarkadetan gutxienez, ikasle euskaldun zirenentzat nahitaezkoa bihurtu zen euskarako eskolak jasotzea. Ho-



rrek hainbat gazterengan euskaraganako gogoa eta maitasuna piztu zuen. Eta, egin-eginean ere, azken hamarkada horietan komunitateko partaide guztiak euskaldunak izan dira.

Komunitateko barru bizitzan, mendez mende latinez izaten zen ordu-otoitzen liburua; 1975etik aurrera, orduen liturgiaren zati bat behinik behin, euskaraz egiten hasi ziren. Hasieratan arratseko otoitza izan zen<sup>10</sup>, gero gainerako eliz otoitz gehienak euskaraz egitera jotzeko.

Azken hamarkada hauetan, beraz, eguneroko komentuko bizitzan erabili izan den mintzaira euskara izan da.

### **b. *Euskal Liburutegi Elkartua***

Napoleonen denporan soldaduek desagerrarazi zituzten Markinako Karmengo biblioteka eta artxiboa. Gero berriro sortu zen biblioteka. Baina orain dela 50 bat urte karmeldarren Euskal Herriko Probintzian *euskal biblioteka* sortzeko gogoak, Markinako komentuko fraideez gainera, Bizkaiko eta Gipuzkoako beste komentu batzuetakoak ere zeregin horretara bultzatu zituzten. Biblioteka hori sortzeak karmeldar euskaldunei kultura arloan nortasuna emango ziela uste baitzen.

Euskal Liburutegi Elkartua antolatzeko asmoa 1968. urte inguruan sortu zen; harrera hobezina izan zuen asmoak.

Helburua, ekonomiak ezarritako mugen ahalbideak ahalik eta egokien erabiliz, gure erlijio eta kultura ministeritza burutu behar genuen herriko hizkuntza, literatura, historia eta, orokorrean, kultura bereziari buruzko biblioteka on bat egitea zen. Ekonomikoki ezinezkoa gertatzen zen komunitate bakoitzak bere biblioteka egokiro hornitzea. Bestalde, gure komentuetako biblioteketan izandako hainbat eta hainbat liburu eta aldizkari sorta desagertu egin ziren gerretan, probintziako gure komentuetan ale bakarrak sakabanatuta geraturik. Era berean,

<sup>10</sup> MKA (Markina-Xemeingo Fraide Karmeldarren Artxiboa), A-II-la, Libro de crónicas, 135.or.

gure biblioteka gehientsuenetan ezin ziren bakarrean lortu sortak osatzeko beharrezkoak ziren halako aleak zein antzina euskal liburu batzuk, oso arraroak edo bakanak zirelako eta horrek kostu handia zuelako. Era berean, edozein lan sarkon burutu nahi izanez gero, ezinbestekoa gertatzen zen bibliografia osoa, ahal zen neurrian, toki berean bilduta edukitzea. Beharrezkotzat jo zen, bada, euskal kulturari buruzko liburu guztiak biblioteka elkartu batean biltzea eta aurrerantzean argitaratzen ziren berriak erosiz joatea.

Deia egin zitzaien honelako biblioteka eratzeke gertu izango zirela uste zen komentu guztiei. Lehen bilera 1969.eko otsailean egin zen karmeldarren Larreako komentuan. Begoña, Amorebieta, Markina, Eibar, Donostia, Altzo eta Larreako ordezkariak bildu ziren<sup>11</sup>.

1969.eko otsailaren 7an hainbat gorabehera aztertu ziren, besteak beste, zein izan zitekeen horretarako komenturik egokiena, liburuen ekarpena, beraien jabetza, etxe bakoitzak egin beharreko ekarpen ekonomikoa eta abar. Hasiera batean Larreako komentuan jartzea pentsatu zen, baina, hori bilera hartan eratu zen batzordearen esku utzi zen. Batzorde horretarako kide, honako hauek izendatu ziren: Lino Akesolo, Santiago Onaindia, Lon Artega, Carmelo Zubizarreta eta Miguel Maria Juaristi.

Aita Lon Arteagak berehala egin zuen Markina, Amorebieta, Larrea, Eibar eta Altzon zeuden liburu, liburuxka, aldizkari eta abarren zerrenda; geroago Begoñan zeudenena.

Nahiz eta batzordea gogotsu lanean hasi, ez zen benetako urratsik 1974. urtera arte eman. Arazo hori zela eta, 1973an hainbat gutun idatzi zitzaien Probintziako arduradunei. Horrela, Aita Luis Baraiazarrak Aita Francisco Ibarria Probintzialari idatzi zion «Karmeldar lege-barruan nola euskal-girotu gure

<sup>11</sup> GPKA (Gasteizko Probintziako Karmeldarren Artxiboa), Markina 3, Euskal Liburutegi Elkartua: "Karmel".

etxe-barruko bizitza» gaiari buruz eginiko azken bileren berri emanez; eta Euskal Liburutegi Elkartua eginbeharra gogoratzen zion, horretarako Probintziaren laguntza behar zela esanez. Azken bileran Biblioteka Markinan ezartzea erabaki zen<sup>12</sup>. 1977ko Gabonetan, Markinatik Begoñara aldatu zen Euskal Liburutegi hau.

Euskal Liburutegi Elkartua Begoñara eramana izan bazen ere, Markinako Karmengo komentuak badu orain arte euskal liburutegi bat, azken hamarkadetan asko gehitu dena.

### c. “Zerutxu” ikastola <sup>13</sup>

60.eko hamarkadan berriro hasi ziren agertzen egoera sozio-politiko eta linguistiko berezia, batez ere euskal-kulturari begira. Horrela, Markinako Karmengo komentuan martxan jarri zen «Zerutxu» ikastola Bizkaiko lehenetarikoa dugu.

Sorburua, euskara salbatzeko euskal eskola sortzeko premiaren kontzientzia izan zen. Aita Migel Maria Juaristi karmeldarrak Justo Arrieta, Markina-Xemeingo alkate eta probintziako Diputatu jaunarekin zuen adiskidetasuna izan zen herrian euskararen galera gelditzeko elkarrizketen abiaburu.

Lehen unean, Migel Mariak eta alkateak Markinako Vera Cruz ikastetxera jo zuten bertako neskatala ikasleei euskara irakasteko eskatuz; erantzuna, zenbait hilabete luze iragan ondoren, ezezkoa izan zen<sup>14</sup>.

196leko urtarrilaren hasieratan asmoa zabal-zabal zebilen, nonbait, Juan San Martin Jnak, «Txanton» Aita Antonio Goiria Eibarko karmeldarraren bidez, Markinan ikastola sortu nahi

<sup>12</sup> Ibid., 1973-IV-24eko gutuna.

<sup>13</sup> 294 Ikusi MKA, E-II-ko agiriak; H-I-20, etab.; eta Luis Baraiazarrak argitaratutako idazlan laburrak: “Zerutxu” ikastolaren 25.urtea, *Karmel*, 1989-3, 65-73; eta *Garaian* (1989).

<sup>14</sup> MKA, H-1-20a, P. Miguel María Juaristi: *Breve referencia de la ikastola “Zerutxu” de Marquina-Jemein*.

zutela jakinik, Aita Migel Mariri zorionak eman eta Euskaltzaindira jotzeko esaten baitzion<sup>15</sup>. Egin-eginean, hala egin zuen Aita Migel Marik; Euskaltzaindiak 1961eko martxoaren lean honela erantzun zion: «Artu genduan zuen karta ilbeltzaren 30-ekoa. Euskaltzaindiak otsailaren 24-an Donostiako Diputazioan egin zuen batzarrean irakurri zan. Euskaltzaindiak oso begi onez ikusten du zabaldu dezuten euskal-eskola eta prest dago berak aal duen laguntasun geiena amateko, bai izkuntzaren ezagupideari dagokan aldetik, eta baita izkuntzari dagokan beste edozein aldetatik ere. Eskerrak emanik euskeraren alde zuen gain artu dezuten lanagatik zoriona deseoa di-zuegu. Euskaltzainburua, Ignacio M<sup>a</sup> Echaide<sup>16</sup>.

Baina ez zen batere erraza asmo eder haiek burutzea. Gerrogo, gertakari batek adorea eman zien proiektua aurrera eramateko: Justo Arrieta alkate jaunak umeentzat euskaraz antolatutako lehiaketa batek porrot egin zuen, inork ez zuelako euskarazko gutxieneko gramatika ezaguerarik izan. Horrek guztiak alfabetatu gabeak zirela esan nahi zuen. Eta bultzaitzaile biek, alkateak eta Aita Migel Marik, berriro jo zuten 1963an Mesedetako mojen Vera Cruz ikastetxera, hala nahi zuten gurasoen seme-alabentzat ikastola modura haurtzaindegia jartzeko eskatuz. Erabateko ezezkoa jaso zuten oraingoa ere.

Jarraian Eskola Estataletan egiteko bideak aztertzen hasi ziren. Ahaleginok alferrekoak gertatu ziren.

Baina Zerutxu ikastolak zuen eragozpenen artean kokatua izateko ziurtasun eza nabari zen; horrela, 1969-1970. ikasturtean berriro komentuko ikasgeletara ekarri zituzten umeak.

Egin-eginean ere 1969ko azaroaren 16an ospatu zen komentura itzultzea; meza, bilera, dantzak, jokoak eta abar izan ziren eta ikasgelak bedeinkatu ziren<sup>17</sup>.

<sup>15</sup> 296 MKA, E-II1-1, 1961-I-31ko gutuna.

<sup>16</sup> MKA, E-III-2.

<sup>17</sup> MKA, E-III-12.

Ikastolak komentuko ikasgela horietan jarraitu zuen 1985era arte, urte horretan behin betiko Mesedetako mojen etxera aldatu zen.

#### **d. «Tiki-Taka» eta «Sugar»**

Markinako karmeldarrak umeei eta gaztetxoei euskal kultura eta euskara zein giza eta erlijio hezkuntza eskaintzen eginitiko jardueraren haritik datoz *Tiki-Taka* eta *Sugar-Taldea* deituen bidez burututako bi jarduerak ere.

Aita Luis Baraiazarrak sortu zuen «Tiki-taka» umeen aldizkaria Aita Tomas Zugazartaza lagun zuela. Lehen alea 1973ko uztailean kaleratu zen. Eta kaleratu berri, hegaz eginez hartzaileen artean banatzeko astirik gabe Goardia Zibilak konfiskatu zuen 1973ko abuztuaren 2an komentuan eginitako erregistroan. Ezin izan zen aurrerantzean alerik atera baimenik ez zelako lortu eta multikopista Guardia Zibilak eraman zuelako.

«Sugar» Taldea Markinako gazteriarri erlijio arloan aurrerabidea eta laguntza emateko asmotan sortua izan zan, batez ere, gure Begoñako, Donostiako eta beste hainbat lekutako komentuetan egin izan zen bezala.

#### **e. Bertsolari-Batzarrak Karmengo komentuan**

Ekintza hau Markinako Aita Karmeldarrek, bereziki Miguel María Juaristi bertako prioreak, eraginda sortu zen<sup>18</sup>. Euskal

<sup>18</sup> Bilera hauei buruzko agiriak MKA, H-I-1 1, H-I-5 eta J-I-8an aurkitzen dira. Hasierei buruz *La Voz de España* (1965-X-14) egunkariak “Mi atalaya montañera” izenburua eta “grata reunión” izenburuordea jarritz (uste dut Basarri-rena dela) argitaratutako orriaren ebakina dago. Eta idazlana “El comienzo fue el año pasado” dioela hasten da, baina “pasado” hitza Karmengo artxiboko ebakinean “1963” eskuz idatzita ageri da. Idazlan horretan ez da benetako zehaztasunik eskaintzen ez baitago argi eta garbi dekribatuta bertsolarien jai edo bilera lehen urteari (1963) dagokiona den ala pentsa daitekeenez 1965ekoari.

Herriko bertsolariak 1963ko urriaren 12an Markinan biltzea pentsatu eta erabaki zen.

Urte horretan eta jarraikoetan Aita Migel Maria Juaristi euskaltzaleak egin izan zuen bilerarako deia<sup>19</sup>. Bigarren bileran, hau da, 1964ean Aita Migel Marik gonbidapena egite-rakoan, ospakizun hori zela eta Basarrik *Zeruko Argian* argi-tara emandako bertsoak bidaltzen zituen. Markinako Prio-reak eginiko hirugarren gonbidapenari, Zarauztik erantzun zion Basarrik 1965eko agorraren 18an: “Poz eztitan irakurri det zurea. Pilareko eguna ba-datorkigu. Asteartez aurten, ain zuzen”...

Aita Migel Marik Euskal Herriko bertsolarien zerrenda zeu-kan eta guztiei bidaltzen zien gonbidapena. Harrera oso ona egiten zioten garai hartan osperik handiena zuten bertsolari-ek. Horrela, esaterako, 1964ko argazkian 46 ageri dira. Komen-tuko kroniketan, bi aldiz jasotzen da ekintza honen berri, hots, 1968 eta 1975ko urteetan eta 50 inguru izan zirela esaten da.

Gorde izan diren egitarau eta gonbidapen gutun ezberdi-netan ageri denez, goizeko 11,30etan meza izaten zen, eta bertan bertsolariak hasieran, eskaintzan zein amaieran parte hartzen zuten. Jarraian, bertsolaritzari buruzko hitzaldiren bat eta bertsolarien jarduketa eta, azkenik, eguerdiko ordu bietan bazkaria komentuko jantokian.

Halako egunetan egin ohi ziren hitzaldiei buruz zerbait esatekotan, lehenengotariko hizlariak Jose Maria Iriondo eta Juan Maria Lekuona etab. izan zirela ekar dezakegu gogora.

Aita Fabian Juaristi komentuko priore zela (1975-1978) amaitu ziren bilera hauek.

<sup>19</sup> Jarraiko urteotako gonbidapenak gorde izan dira: 1964 (2.a), 1965 (3.a), 1966 (4.a), 1967 (5.a), 1968 (6.a), 1971 (9.a).

## 2. Musika-kultura

Handia izan da Markinako komentuaren historian zehar bai liturgian baita ikastetxeko bizitzan, musikari eman izan zaion lekua. Era bereziz, urteetan zehar Markinan bizi izan diren karmeldar musikari bi, hots, Aita Jose Domingo Santa Teresa-rena (Frantzisko Ugartetxea) eta Aita Emiliano Jesus Haurrena (Julian Barandiaran) komentu barruko zein hiriko musika bizitzaren bultzatzaile edo animatzaileak izan dira.

### *a. Musika komentuko bizitzan eta liturgian*

Leku garrantzitsua eman izan zaiola musikari Markinako komentuan burutu izan den liturgian, batez ere, Markinako Karmengo etxearen Berrezartze ostean; karmeldarrek lan handia burutu izan dute kantu gregorianoak izan duen arte arloko garapenean Markinan zein Euskal Herrian.

Ordenako antzinako legeek, Markinako etxearen eraiketa urtetik (1691) esklaustrazio garai arte, eliz otoitza, batzuetan kantatuz egitea agintzen zuten: horrela, maitinak eta gorespesak, liturgiaren eskariei jarraituz urtean zehar garrantzia handiko 18 bat jaietan abestu beharra zegoen; era berean, igande eta jaiegun guztietan komentu-meza eta aurreko «Ordua» zein «Bezperak» abestu egin ohi ziren.

Batez ere, XX. mendean igandeetako meza abestuak trebetasun handiz eginak izaten ziren musika gregorianoz zein kantu polifonikoz aipaturiko Aita Jose Domingo eta Aita Emiliano karmeldarren zuzendaritzapean.

Ohiko musika-jardueraz gainera, hau da, liturgiako eta komentu bizitzako jai ezberdinetako egintzez aparte, badira kroniketan jasoak izan diren beste une berezi batzuk ere.

Horrela, esaterako, 1957ko uztailaren 18an Karmengo organo berriari hasiera emate egunean, Jose Manuel Azkue Jnak J.

S. Bach, C. Franck, F. Liszt eta abarren lanak joz eskainitako organo emanaldia<sup>20</sup>.

Karmengo etxearen Berrezartzearen 50. urtemuga zela (1918an) eta abuztuaren 15-19 arteko egunetan honako meza polifoniko hauek abestu ziren: O. Ravello-ren Missa in honorem S. Orestes hiru ahotsetan; Goikoetxea-ren Missa in honorem I. Concepcionis hiru ahotsetan; Cicognani-ren S. Cecilia-ren meza hiru ahotsetan; Perosi-ren Misa Secunda Pontificalis hiru ahotsetan; Victoria-ren misa pontifical lau ahotsetan... Horretaz gainera, 19an literatura-musika ekitaldi bat egin zen arratsaldez<sup>21</sup>...

Karmengo ikastetxean, 1936ko gerra osteko azterketen aktetan ikus daitekeenez musika irakasten zen. Eta ikasleek literatura-musika ekitaldiak egiten zituzten hainbat gertakariren harian. Komentuan zein herrian sortutako Musika giro honek tan ospatu zen 1983ko ekainaren 7tik 11ra, Markinan VI Euskal Musikastea, organo, txistu eta orkestra kontzertuak eskainiz<sup>22</sup>.

### **b. *Musika akademia Karmengo etxean***

Aita Emilianok musika akademia bat jarri zuen martxan. Akademia honek 1956tik 1963ra arte iraun zuen, Aita Emilianok zuen koaderno batean ageri diren ikasle, nota eta ordainketa zerrendaren arabera<sup>23</sup>. Hain zuzen ere 1963ko azken urte horretako abenduan aurkeztu zion Aita Migel Mari komunitateko prioreak Udalarari «Academia de música» berriaren aribide proiektua. 1964ko otsailaren 10ean jakinarazi zuen udalak proiektuaren onarpena.

<sup>20</sup> MKA, a-II-la, *Libro de crónicas*, 43.or.

<sup>21</sup> MKA, A-I-234.

<sup>22</sup> MKA, A-II-la, *Libro de crónicas*, 193.or.

<sup>23</sup> MKA, A-I-265, *Academia de Música de PP.Carmelitas Descalzos de Marquina. 1956 (-1963)*.



***c. Aita José Domingo de Santa Teresa (Ugartetxea Urkieta, 1888-1980)***

Markinan jaio zen 1888ko irailaren 23an. Bertan egin zituen lehen ikasketak 1893tik 1901era bitartean. 1904an joan zen Larreako Karmeldarren nobizio-etxera eta 1905eko apirilaren 17an egin zuen profesia. 1905-1907. urteetako ikasturte biak Markinako Karmenen egin zituen.

Bizitzan zehar aginte-kargu garrantzitsuak izan zituen, batez ere, ikastetxeetan: prioreorde izan zen Burgos-en (1916-1918) eta Gasteizen (1918-1930); Iruñeko Priorea (1930-1933) eta Gasteizekoa (1933-1936) eta nobizioen maisua Larrean (1936-1937); gerran presazko epaiketaren ondoren espetxeratu izan zen: nazionalista buruberoa eta nazionalismoaren zabaltzaile izatea leporatu zioten, nobizioen artean propaganda egiten zuela esanez. Gezur hutsa izan zen. Fiskalak 6 urteko kartzela eskatu zuen berarentzat eta 8 urtekoa eman zioten. Karmeldar hain errugabe eta maitagarria kondenatuta ikusirik, bere errugabetasunaren aldeko hainbat eta hainbat adierazpen edo gutun jaso ziren.

Gerra ostean Begoñako Karmeloko prioreorde (1942-1948) izan zen; eta musikako irakaslea bertako urteetan eta beste hauetan: Begoñan bost urtean (1948-1953); Erromako Karmeldarren Nazioarteko Ikastetxean (1953-1955) eta Gasteizen (1955-1964). Gero, Larrean (1964-1967) eta azkenik 1967tik beraren heriotza eguna arte (1980) Markinako Karmengo komentukoa izan zen.

Jainkoari eta Ordenari Elizaren barruan eskaintako gizon laino, xume eta maitagarri honen bizitza, barne-barnetik liluratzeko zuen grina bizi batek, hots, musikak indartuta ageri zaigu. Beraren apostolutza eta liturgia jarduerak ere musikaren soinua izan ohi zuen.

Handia izan zen berak argitaratutako musika-lanen zein argitaratu gabe geratutakoen kopurua. Antonio Unzuetak argita-

ratu zuen Jose Domingoren lanen zerrenda, argitaratutakoena eta eskuzkribuetan geratu direnena: *José Domingo de Santa Teresa (Ugartechea Urquieta) (1888-1980). Apunte Biográfico. Producción de musical*, ABCT (Roma 1997, n. 34) 237-358.

### **3. Karmel aldizkariaren inguruan: azken hamarkadetako jarduera**

#### **a. Karmel aldizkaria: Hirugarrean aroa (1970-1993-2019...)**

1970ean hasi zen *Karmengo Argia (1931...)-Karmengo Egutegia-Karmelen* hirugarren aroa, gaur arte jarraitzen duena. 42 urte hauetan, hau da, 1970ean hasita, egoitza leku desberdinetan izan du, zuzendariaren arabera. Urte askotan larrea izan du bere sorleku eta bizileku, gehien bat Aita Santi Onaindiaren zuzendaritzapean. 1970ean *Karmelek* 1382 harpidedun zituen. Baina 1993tik gaur arte Markina-Xemeinen du bere egoitza, eta zuzendaria, azken 36 urteotan Julen Urkiza da.

Kontuan hartzekoa da aldizkariaren eta idazleen inguruak sortutako mugimendu literarioa; eta aldizkariaren sorreratik gauza jakina da, idazle gazte eta berriei aukera onak eskaini izan zaizkiela, eta horrela, beren nortasuna hartuz joan direla; eta bestalde aldizkari honetan idazle eginak, onartuak eta eus-kara munduan ospea zutenak ere partaide izan direla.

*Karmel* batez ere aldizkari kulturala da, euskal kulturaz, lehenagokoaz eta gaurkoaz aritzen dena. Beste gaiak ere erabilten ditu: gizarte, Eliza, Iritziak, Literatura, etab.

#### **b. Liburu sortak**

Historian zehar ehundaka idazlek parte hartu dute *Karmel* aldizkarian; eta aldizkariaren inguruan beste argitalpenak ere agertu dira. Adibidez, liburu sorta batzuk atera dira: orain arte ateratako lanen artean, azpimarratzekoa da *Karmel-Sorta*, Larrean sortu zena: bertan idazle karmeldarren eta hauen lagunen idazlanak argitaratu dira, eta interesgarria da literatura

ikuspuntutik ikusita eman diren fruituak. Karmeldarren gaiak eta hauen biografiak *Karmel Lekukoak* izeneko sortan ataritzen dira. Eta *Vasconia Sacra* asmo handiaz sortu zen, oraindik liburu bakarra argitaratu bada ere; helburua Euskal Herriko Elizaren historia luze eta sakona da. Liburu sorta hauekin ekarpen handia egiten zaie euskal kulturari eta hizkuntzari, baita Ordenaren historiari ere.

—*Karmel Sorta*

Liburu sorta honen sorrera ustekabekoa izan zen. Azken 50 urteotan Karmeldar batzuk instituzioen aldetik omenduak izan dira; adibidez, Lino Akesolo eta Santiago Onaindia; abagune honek bultzatu zuen Karmel aldizkariko zuzendaria, beste lanak alde batera utzita, *Karmel Sortari* hasiera ematera; hau da, Lino Akesoloren idazlanak ikertzen eta prestatzen hasi zen, baita Santi Onaindiaren olerki-lanen obra osoa ere.



*Karmel Sorta* Larrean sortu zen, eta Markina-Xemeinen izan du jarraipena, 1993an herri honetara aldatua izan baitzen aldizkariaren zuzendaria. Sorta honetan 16 liburu mardul atera dira<sup>24</sup>.

—*Karmel Lekukoak*

Liburu sorta honen hasiera Santa Teresa Lisieuxkoaren heriotzaren mendeurrenean izan zen (1897); eta lehenengo liburuak, *Eskuizkribu Autobiografikoak* liburuak, ez darama *Karmel Lekukoak* bildumaren izenik ezta zenbakirik ere, baina bera izan da lehenengoa. Liburu sorta hau Markinan sortu zen.

Liburu sorta honetan Karmengo Ordenaren gaiak erabiltzen dira, adibidez, ospe handiko euskaldun karmeldarren biografiak. Orain arte 7 liburu agertu dira<sup>25</sup>.

---

<sup>24</sup> Lino AKESOLO, *Idazlan guztiak*, 3 t., Larrea-Zornotza 1989-1992 (KS-1\*, 1\*\*, 1\*\*\*); Santiago ONAINDIA, *Olerki guztien bilduma*, Larrea-Zornotza 1989, 342 or. (KS-2); Sabin Muniategui, *Olerki guztiak*, Larrea-Zornotza 1990, 1155 or. (KS-3); *1491 Loiolako Inazio – Joan Gurutzekoa 1591*, Larrea-Zornotza 1990, 511 or. KS-4); Julen URKIZA, *Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak*, Larrea-Zornotza 1992, 936 or. (KS-5) (Euskal idazketaren arduraduna: Patxi Uribarren); B. Aurre-Apraiz, *Egunen bidean*, Larrea-Zornotza 1994, 416 or. (KS-6); *Aita Gabirel Jauregi Uribarren (1895-1945)*, Markina 1995, 512 or. (KS-7); TERESA LISIEUXKOA, *Idazlan guztiak. Testuak eta Azken Elkarrizketak*, Markina-Xemein 1996, 1223 or. (KS-8); *Teresa Jesus Haurrarena (1873-1897)*, Markina-Xemein 1996, 389 or. (KS-9); Fr. ZUZAETA – Fr. ARAKISTAIN, *Idazlanak*, Markina-Xemein 1997, 333 or. (KS-10); Julen Urkiza, *Aldizkari eta egunkarietako euskal bertso eta olerkien bibliografia*, Markina-Xemein 1999, 1740 or. (KS-11), etc.; Fray BARTOLOMÉ SANTA TERESA, *Idazlan guztiak. Edizio kritikoa*, Bilbao 2000, 1557 or. (KS-12); Friedrich HÖLDERLIN, *Olerki guztiak*. (Edizio elebiduna). Euskeratzailea: Luis Arostegi. Markina-Xemein 2012, 1010 or. (KS-13); SANTA TERESA JESUSENA, *Idazlan guztiak*. Itzultzailea: Luis Baraiazarra Txertudi), Markina-Xemein 2015, 1852 or.

<sup>25</sup> Teresa Jesus Haurrarena, *Eskuizkribu autobiografikoak (euskeraz-Frantsesez)*, Markina-Xemein 1996, 439 or. (KL-1); *Karmeldar Teresiarren Ordenako Orduen Liturgia*, Markina-Xemein 1998, 342 or. (KL-2); Aita Beobide, *Joan Bizente Zengotita-Bengoa. Misiolari eta apostolu handi baten*

—*Vasconia Sacra*

Karmel aldizkariaren zuzendariaren jarduera garrantzitsue-  
na Larrean Euskal Herriko Elizaren historiaren proiektua au-  
rrera eramatea izan zen; eta asmo horrekin urteetan zehar ma-  
terial handia bildu izan du, eta ikerlanen lehenengo fruitua  
sorta berri honen lehenengo liburua hau zen: J. Urkiza, *Eliza-  
ren historia Euskal Herrian. I. Ikerlan materialak*. Markina,  
1995, 1459 or., (Euskal idazketaren arduraduna: Luis Baraiazarra)  
(VS-1).

—“Bostak bat” taldeko Hiztegiak

Hiztegi sorta honek ez du *Karmel* aldizkariarekin zuzenean  
zer ikusirik, “Bostak bat” taldea berezia da, hiztegi gintzan lan  
haundia egiten duena. Baina talde horretan bi Karmeldar, Pa-  
txi Uribarren eta Luis Baraiazarra, taldeko partaide garrantzi-  
tsuak dira (eta biak Karmel aldizkariko idazle kontseilukoak,  
eta Markina-Xemeinen bizi direnak); eta “Bostak bat” taldeko  
beste bat ere, Juan Luis Goikoetxea Arrieta, *Karmel* aldizka-  
riko idazlea da.

*Adorez* izeneko hiztegiak dira, eta 16 Hiztegiaren bidez eus-  
kal kulturari zebitzu ona egiten dio talde honek.

**c. Idazleak**

“Errestaurazio” aurreko garaian gutxi dira ezagutzen ditu-  
gun euskal idazleak. Idazle hauen artean, hauek gailendu zi-

---

*bizitza eta lanak*, Markina-Xemein 1998, 323 or. (KL-3); Aita Beobide, *Aita  
Aureliano Landeta Azkueta. Misiolariaren bizitza (1887-1963)*, Markina-  
Xemein 2000, 286 or. (KL-4); Julen Urkiza - Luis Baraiazarra, *Karmeldarrak  
Euskal Herrian. Nafarroako San Joakim Karmeldar Probintzia. (XIII-XX.  
mendeak)*, Markina 2010, 309 or. (KL-5); *Salmoak. Lino Akesoloren mendeu-  
rreneko argitalpena*, Markina-Xemein 2011, 39+262 or. (KL-6) (Arg.: Julen  
Urkiza, Luis Baraiazarra, Patxi Uribarren); SANTA TERESA JESUSENA, *Bizitza li-  
burua (Euskaraz – Gaztelaniaz)*. Itzultzailea: Luis Baraiazarra Txertudi).  
Markina-Xemein 2012, 709 or. (KL-7).

ren: Jose Antonio Arakistain (1700-1764), Ordena barruan gizon garrantzitsua, Itziarko (Deba, Gipuzkoa) semea; Migel San Frantziskorena (Zuzaeta, 1745-1814), Gerrikaizko (Bizkaia) semea; etab. Baina idazlerik ospetsuena, sermolaria handia eta euskararen klasikoa, Frai Bartolome Santa Teresa (1768-1835) dugu, Etxebarriko (Markina merindadekoa): haren hizkuntza aberatsa eta askotarikoa, berez-berezkoa eta ederra da, eta predikari bikaina zenez, haren prosak fase distiratsuak ditu; euskara bizi, adierazpen indartsu eta molde oneko bizkaiera zaharraren eredia aurkitzen dugu haren liburuetan.

“Errestaurazio” (1868) ostean, Karmeldarrak Euskal Herriko euskal letren historiari lotu-loturik doaz sozial eta kulturalki: lehenik berpiztea hasierako hamarkadetan (1900-1930); euskararen bultzada indartsua gertatu zen mugimendu ugariekin (1931-1935); gero, hondamena gerrarekin eta kulturaren aurkako erasoak; 1945-1950eko urteetan euskara bultzatzeko berriro jaiki nahi modukoa etorri zen, batez ere erlijioso eta apaizen bidez. Karmeldarrak ere kultura-historia horren parte izan dira.

Aipa ditzagun gailendu ziren euskal idazle batzuk: Gabriel Mariaren Bihotzarena (Jauregi Uribarren, 1895-1945), Aramaiokoa, bere liburuekin, *Pisia* (Gasteiz, 1935, 303 or.) eta *Kimia* (Gasteiz, 1936, 255 or.) euskal jendea harriturik utzi zuena; Hipolito Familia Santuarena (Larrakoetxea, 1892-1976), Zenurikoa<sup>26</sup>; Emiliano Jesus Haurrarena (Barandiaran, 1904-

---

<sup>26</sup> Ugariak izan arren Elizaren zerbitzuan edota Ordenako lanetan Erroman zein Euskal Herrian zituen eginkizunak eta hainbat eta hainbat idazlan, batzuetan luzeak, gazteleraz, latinez eta frantsezez idazten saiaturia izan arren, ardura eta maitasun handiz saiatu zen euskaraz: «Legoaldi» ezizena erabiliz *Euzko-Deia*, *Euskal-Esnalea*, *Zeruko Argia*, *Euzkadi*, *Euskera* aldizkarietan idatzi zuen; bereziki, *Karmengo Argia* karmeldarren aldizkarian egin zuen, bertan 1931-1932. urteetan zehar hamabi idazlan labur, batez ere Erromako berriak emanez, idatzi zituen. Gerra aurreko urteetarako nahiko garrantzi handiko lana alemanieratik euskaratutako *Grimm Anayen Ipuinak* liburua izan zen. Izugarritzko ahalegina eta lana eskatu zizkion beste lana *Erroma'ko*

1967)<sup>27</sup>, Eskoriatzakoa; idazle eta musikaria; Agustin San Franziskorena (Atutxa Bikarregi, 1908-1973)<sup>28</sup>, Dimako semea; Nikolas Jesusena (Batiz Bilbao, 1907-1995)<sup>29</sup>, Markinakoa; An-

*Eleizearen Araudia (Euskaraz)*, Tolosa, 1978, 471 or. (Kardaberaz Bilduma, 32) izan zen. Lan hau irakasle zelarik egina izan zen, baina geroago berregin beharra izan zuen; bertan lehenago aipatu dugun kontaketa autobiografiko labur bat ere eskaintzen digu: «Azken urte hauetan egin dudan lanik handienetarikoa bat, Kardaberaz Elkartek eskatu zidanari jarraituz Zuzenbide Kanonikoaren euskarako nire itzulpena berriro idaztea izan da». Argitaratuak izan ez diren beste euskarako eskueskribu batzuk ere utzi zizkigun.

<sup>27</sup> Markinan hezitzaile eta irakasle zereginetan eginiko jarduera hastean, nahiko ardura handiz euskaraz idazten saiatu zen. Gerra aurretik beraren idazlan bat agertu zen *Karmengo Argian* 1934.ean eta hainbat eta hainbat idazlan *Karmel* aldizkarian 1957-1961. urteen artean, nahiz eta gehienak musika arloari zegozkionak izan; era berean, parte hartu zuen, baita ere, *Zeruko Argian* eta *Olertin*. Karmengo Amaren Eskapularioaren 7. Mendueurrena (1251-1951) zela eta, 265 orrialdeko lehen liburua argitaratu zuen euskaraz: *Andre Mari Euskalerriko mendietan* (Bilbo 1952). Hiru urte geroago, beste bat argitaratu zuen: *Andre Mari Gaztediaren Eskuetan*. I. Atala. A. Emiliano Karmeldarrak euskaraz eratu (Gasteiz, 1954, 280 or.). Eta 1960an *Arrateko Ama Sortzez Garbiaren kondaira eta bederatzizurren laburra* (Bilbao 1960, 19 or.). Eta argitaratu gabeko beste idazlan batzuk ere utzi zizkigun: Andre Mariari buruzko sortan (*Andre Mari gaztediaren biotzetan*, *Andre Mari mirarietan*, II-III); - Jon Gurutzekoren bi idazlan euskaratuta (*Cántico Espiritual* eta *Llama de amor viva*); idazlan bi hauek, zuzenketa eta ortografia moldaketa txiki batzuk eginda, argitaraturik daude Santuaren lan hautatuen artean; Gar-Mar-en *Sugerencias* lana euskaratuta (*Gogo-izpiak* - 1. Atala); Umeentzat “Mi enciclopedia” deritzanaren lehen liburukiaren itzulpena euskaraz; L. Evely-ren *Ese hombre eres tú* idazlanaren itzulpena; Aita Teodosio-ren *Ese tesoro que llevamos dentro* («Barruan ezkatzen degun Balioa» liburuxkaren itzulpena).

<sup>28</sup> Zenbait aldizkaritan parte hartu zuen, batez ere Karmengo Argia karmeldarrenean, «Elorri», «Eltzegor», «Emaldiko»,... izenordeak erabiliz. Dozena bat olerki argitaratu zituen. 1969an Karakas-en «Mugarra Begiraria» poema argitaratu zuen.

<sup>29</sup> Euskal idazle gisa hainbat aldizkaritan parte hartu zuen prosazko lanen zein olerkien bidez Buenos Aires-eko eta Euskal Herriko aldizkarietan; horrela, esaterako, *Zeruko Argia*, *Euzkadi*, *Karmengo Argia*, *Eguna*, *Karmel*, *Euzko-Gogoa*, *Agur*, *Goiz Argi*, eta abarretan. Barbin, Xalokin (Nikolax)... ezizenak erabili izan ditu. Era berean, 1973ko abuztuan Gurutz-Bidea argitaratu zuen euskaraz.

tonio Jesus Haurrarena (Goiria Muniozguren, 1908-1990)<sup>30</sup>, Galdakaokoa; Santiago Deikundekoa (Onaindia Baseta, 1909-1996)<sup>31</sup>, Amorotoko semea, idazle ugaria eta olerkaria, *Karmel* aldizkariaren zuzendari urte askotan, *Olerti* aldizkariaren sortzailea; Lino Familia Santuarena (Akesolo Olibares, 1911-1991)<sup>32</sup>, idazle ona eta euskaldun jakintsua; hainbat aldizkarietan parte hartu izan du *Karmengo Argiaren* zuzendaria, gero *Karmel* aldizkariko idazle oso fina.

Beste hainbat idazle, *Karmengo Argia* eta *Karmel* aldizkariaren inguruan euskal letrak lantzen agertzen zaizkigunak: Lorenzo Santa Teresaxorena (Lon Arteaga Bilbao, 1917-1980)<sup>33</sup> Mañariakoa, Karmelo Zubizarreta (1927-1996), *Karmel* aldizkariaren zuzendaria hamar urtean (1974-1983)<sup>34</sup>, etab.

<sup>30</sup> Literatura jarduerari dagokionean, hainbat aldizkarietan prosa zein olerki lanak argitaratuz parte hartu zuela esan beharra dago. Horrela, esaterako, *Jaungoikozale*, *Euzko-Gogoa*, *Egan*, *Olerti*, *Anaitasuna*, *Euskal-Esnalea*, *Ekin*, *Euzko-Enda*, *Euzkadi*, *Euskerea*, *Goiz-Argi*, *Agur*, *Zer*, eta abarretan; era bereziz *Karmengo Argia* eta *Karmel* karmeldarren Ordenako aldizkarietan. Hainbat liburu argitaratu zituen euskaraz: *Berio-Otxoaren Bizitza*, Bilbao 1952, 96 or.; *Karmengo Eskapularioa*, Bilbao 1952, 201 or.; *Fatimako Ama Birjina*, Gasteiz 1955, 260 or.; *Goit-Bidez*, Bilbao 1968, 423 + IV or.; *Kristoren Eliza*, Bilbao 1971, 259 or.; *Gernikako Arbola*, Bilbao [1983], 36 or.

<sup>31</sup> Haren liburu askoren eta artikuluen bibliografia: J. Urkiza, *S. Onaindiaren euskal idazlanen bibliografia*, Amorebieta-Etxano 1989, 58 or.

<sup>32</sup> Ik. J. Urkizak eginiko bere idazlanen bibliografia: *Idazlan guztiak*, 3. lib., Larrea-Zornotza, 1992, 18-45. Argitalpen bi aipatuko ditugu: *Idazlan guztiak*, 3 lib., Larrea-Zornotza, 1989-1992 (Karmel Sorta 1\*, 1\*\*, 1\*\*\*), A. Julen Urkizak prestatutako argitalpena; eta *Diccionario de Retana de Autoridades de la lengua vasca*, 9 lib., Bilbao 1976-1989.

<sup>33</sup> Egia esan, euskal idazle legez ez da idazlan ugari idatzi dituenetakoa. Hala ere, idatzi zituen lanetan maisutasuna erakusten du. Hainbat aldizkariri eskaini zien bere lankidetzat; honakook aipa ditzakegu: *Karmengo Amaren Egutegia*, *Euzko-Gogoa*, *Olerti*, *Agur*, *Dantzari*, *Príncipe de Viana*, *Zer...* eta batez ere *Karmel* aldizkaria. Aipamena merezi du argitaratu gabe utzitako eskuizkribuak. Bertan Frai Bartolome karmeldar ospetsuaren lanak transkribatu eta gaur egungo ortografia eran (1972) inprimategira bidaltzeko gertatuta jarriak utzi zituen.

<sup>34</sup> *Naigabez* izenburua duen eleberria argitaratu zuen, Eibar 1979, 117 or.



### ***Azken aldikoak***

Eta beste batzuk *Karmel* aldizkariaren azken belaunaldikoak, gaur egun bizi direnak, aldizkari hau azken 26 urteotan Markinan argitalpen-bolada baten ardatz bihurtu den belaunaldikoak. Bost aipatuko ditugu:

- a) *Luis Arostegi Gamboa* (1939-), idazle teologo eta olerkaria<sup>35</sup>; Gatican jaioa; urte beteko ikasketak egin zituan Markina-Xemeinen (1956-1957). Teologian lizenziatua, eta filosofian doktorea.

Euskal Herriko (edo Nafarroako San Joakim izeneko) Karmeldarren probintzial izan da bost trieniotan (1987-1990, 1990-1993, 1996-1999, 2011-2014, 2017-), eta Ordenako Jenerala (2004-2010).

Bere bizitza kulturean, idazle legez, bi erataria agertu izan da: batetik euskal idazle legez, eta bestetik erdal idazle legez, teologiako eta espiritualitateko gaiak erabiliz.

Karmel aldizkariko lankide eta bertako kontseilukoa da; aldizkari honetan 70 bat idazlan argitaratu ditu, eta 12 poetaren poesiak itzuli eta bertan argitaratu ditu<sup>36</sup>.

Orain dela gutxi *Karmel Sortan* (13. zk.) argitaratu du Friedrich Hölderlin-en (1779-1843) lan poetiko osoaren itzulpena: Friedrich HÖLDERLIN, *Olerki guztiak. (Edizio elebiduna)*, Markina-Xemein 2012, 1010 or.

---

<sup>35</sup> Obra honen zuzendari eta koordinatzaile izan zen: Joan Kurutzekoa, *Idazlan autatuak*, Vitoria 1992, 360 or.; ondorengo olerki-lana ere atondu zuen argitaratzeko: Balendin Aurre-Appraiz, *Egunen bidean*, Larrea-Zornotza, 1994, 416 or. (Karmel Sorta 7). Bere olerki-liburu bat ere argitaratu zuen gaztelaniaz: *Poesías inacabadas – Amaitu bako poemak*, Bilbao 1969, 97 or. (Santi Onaindiaren euskarazko itzulpena).

<sup>36</sup> Cf. Julen URKIZA, *Karmel (Karmengo Argia, Karmengo Amaren egutegia, Karmel)*. *Bibliografia osoa (1931-2007)*, Karmel 2008-3, 20-22.

Orain beste lau aipatuko ditugu, gaur egun *Karmel* aldizkariaren zutabe direnak: bat markina-xemeindarra eta beste hiru Markinan bizi direnak.

- b) *Andoni Olea Agirregomezkorta* (1939-), markina-xemeindarra, teologian doktorea. Azken hiru hamarkadetan Zornotzako Larrean nagusi, parroko eta katekesiaren zuzendari; eta *Karmel* aldizkariko idazle kontseilukoa eta idazle fina. Bertan 110 artikulua inguru argitaratu ditu.

Santa Teresa Lisieuxkoren gaietan espezialista denez, *Karmelen* zenbaki berezian (1996-3/4), eta haren idazlanen argitalpena prestatzen lagundu zuen: TERESA LISIEUXKOA, *Idazlan guztiak (Testuak eta Azken Elkarrizketak)*, Markina-Xemein 1996, 1223 or.<sup>37</sup>

- c) *Patxi Uribarren Leturiaga* (1942-), Aramaiokoa, teologian eta euskal filologian lizenziatua, eta euskaltzain osoa. Begoñako Karmelon urte askoan bizi izan dena, eta zortzi urtean Markina-Xemeinen. Bizitza osoa euskal kulturari eta hiztegi gintzari emana darama.

“Bostak Bat” lantaldekoa eta sortzailetakoa da, eta taldean *Adorez* izeneko bilduman 31 euskal hiztegi atera ditu; bera da lantaldeko koordinatzailea azkenaldian.

Hainbat aldizkaritan parte hartu du, baina batez ere *Karmel* aldizkarian: bertan 130 bat idazlan argitaratu ditu, gehienak euskara eta euskal kultura gaitzat harturik, eta 23 idazlan itzuli. Beste aldizkari batzuetan ere partu izan du.

- d) *Luis Baraiazarra Txertudi* (1940-), Meñakakoa; euskal filologian lizentziatua, magisteritzako maisua, eta eus-

---

<sup>37</sup> Bi liburu argitaratu ditu gaztelaniaz, biak santa Teresa Lisieuxkoari buruzkoak: *Creer amando o el mensaje de Teresa de Lisieux*, Burgos 1966, 285 or. (Colección Karmel 26); eta *Las páginas más bellas de Teresa de Lisieux*, Burgos 2001, 175 or. (Colección “las páginas más bellas”).

kaltzain ohorezkoa. 52 urte daramatza Markina-Xemeinen; irakaskuntzari eta euskal kulturari emana bizi izanda, hau da, euskararen zerbitzuan. *Karmel* aldizkariko zutabea da, bertako idazleen kontseilukoa: 200 idazlan inguru argitaratu ditu, baita beste 30 bat idazlan itzuli ere, eta *Karmel sortan* ere parte hartu du. Beste aldizkarietan ere idatzi izan du: *Garaian*, *Olerti*, *Jakin*, *Bertsolari*, *Zeruko Argia*, etab.

“Bostak bat” lantaldeko partaide oinarrizkoa da; esan dugunez, taldeak 31?? euskal hiztegi atera ditu.

Baina euskal kulturari begira hainbat liburu argitaratu ditu, bakarrik eta lankidetzan.

1980an bi liburu txiki atera zituen: *Euskal Herriaren Hiztoria* (Bilbo 1980); geroago olerki-liburu bat: *Hitzezko txirlorak* (Donostia 1985). Eta urte batzuk geroago, beste liburu hauek: *Jon Lopategi, bertsozko mezularia*, Andoain 2000, 420 or.; *Nire umetako Meñaka*, Meñaka 2005, 326 or.; *Nire sasoiko Markina-Xemein*, Markina-Xemein 2009, 485 or.

Parte handia izan zuen Lisieuxko Santa Teresaren idazlanen itzulpenean: *Idazlan guztiak (Testuak eta Azken Elkarrizketak)*, Markina-Xemein 1996 1223 or.).

Julen Urkizarekin batera Frai Bartolome Santa Teresaren edizio kritikoa burutu zuen (*Idazlan guztiak*, Bilbao, 2000, 1557 or., Colección Euskararen Lekukoak-20, Karmel Sorta-12); baita liburu hau ere: *Gurutzeko Joan donea. +1591-1991. Artea – bizitza – gogoetak*, Larrea-Zorrotza 1990, 112 or.; eta “Bidegileak” sortako lau liburuxka: *Santiago Onaindia (1909-1996)*, Vitoria 1998, 25 or., eta *Augustin Zubikarai (1914)*, Vitoria 1999, 25 or.; *Lino Akesolo (1911-1991)*, Vitoria 2002, 25 or.; *Hipolito Larrakoetxea (1892-1976)*, Vitoria 2004, 25 or.

Azken urteetan hiru itzulpen handi egin ditu: *Vatikano II. Kontzilio Ekumenikoa. Konstituzioak. Dekretuak. Adierazpenak. Eta Dokumentu osagarriak. Euskaraz eta latinez*, Bilbao 2003, 1500 or., eta SANTA TERESA JESUSENA, *Idazlan guztiak*, Markina-Xemein 2015, 1852 or. Baita aipatzekoa da J. Urkizaren liburu handiaren itzulpena: *Elizaren historia Euskal Herrian. I. Ikerlan materialak*, Markina 1995, 1459 or.

- e) *P. Julen Urkiza Txakartegi* (1944-), Ondarroakoa; teologian doktorea, eta euskaltzain ohorezkoa; historiaren ikertzailea izan da. Ikasketa nagusiak Vienan egin zituen; han bizi izan zen 18 urtean (1963-1981), gero 11 urte Zornotzako Larrean (1982-1993) egin zituen, eta azken 26 urte Markina-Xemeinen. Lanik nagusia historiaren ikertzaile-lana izan da.

Kultura eta historiari dagozkion lan ugari egin ditu, bai Karmengo Ordenari buruzkoak baita Euskal Herriari buruzkoak ere.

Erdaraz idatzitako lanak alde batera utzita<sup>38</sup>, euskarazkoak aipatuko ditugu.

<sup>38</sup> Batez ere Ana de San Bartolome-ri buruz idatzi du asko (Ana Santa Teresaren lagun mina izan zen), idazlanak alde batera utzirik, liburu hauek argitaratu ditu: *La beata Ana de San Bartolomé y la transmisión del espíritu teresiano*, Roma 1977, 192 or. (Monte Carmelo 84 (1976) 115-301); *Obras Completas de la beata Ana de San Bartolomé*. Tomo 1. Edición crítica preparada por Julián Urkiza, OCD. Roma 1981, IX - 205\* - 858 or. (Monumenta Historica Carmeli Teresiani, 5). Tomo 2. *Cartas*. Edición crítica preparada por Julián Urkiza, OCD. Roma 1985, XIX - 967 or. (Monumenta Historica Carmeli Teresiani, 7); ANA DE SAN BARTOLOMÉ, *Obras completas*. (Edición preparada por Julián Urkiza). Burgos 1999, 1642 or. (Maestros espirituales cristianos, 16); ANNE DE SAINT-BARTHELEMY, *Autobiographie* d'après l'édition critique publiée en 1981 par le Père Julián Urkiza, OCD, du manuscrit autobiographique conservé au Carmel d'Anvers. Introduction et notes par le P. Urkiza. Traduction française par le P. Pierre Sérouet, OCD. Gent, 1989, 211 or. (Autobiografía hau leku eta data berean Holandako hizkuntzan); *Ana de San Bartolomé (1549-1626). Compañera inseparable de santa Teresa de Jesús*.

Larrea bizi zenean, hirugarren urtean (1984an), *Karmel* aldizkariaren zuzendari izendatu zuten, eta gaur arte jarraitzen du eginkizun horrekin, hiru urtetik hiru urtera berriztatuz. Bertan 170 bat idazlan argitaratu ditu, baina beste aldizkari batzuetan ere parte hartu izan du. Eta aldizkariaren inguruan euskal liburuen bildumak ere sortu ditu: Zornotzan bizi zela *Karmel Sorta* (1989-), eta Markina-Xemeinen *Vasconia Sacra* (1995-) eta *Karmel Lekukoak* (1996-).

*Karmel Sorta* Bilduma Lino Akesoloren obrak argitaratu ditu (*Idazlan guztiak*, 3 lib., Larrea-Zornotza, 1989-1992. KS-1\*, 1\*\*, 1\*\*\*), Santi Onaindiarenak (*Olerki guztien bilduma*, Larrea-Zornotza, 1989, 342 or. KS-2); Sabin Muniategiarenak (*Olerki guztiak*, Larrea-Zornotza, 1990, 1155 or. KS-3); Frai Bartolome Santa Teresarenak (*Idazlan guztiak. Edizio kritikoak*, Bilbao, 2000, 1557 or. KS-12), Luis Baraiazarrarekin

---

*Breve biografía y novena*, Burgos 2004, 188 or.; *Comienzos del Carmelo teresiano francés. Búsqueda de candidatas (1604)*, Burgos 2004, 274 or. (Estudios MC); *Procesos de beatificación y canonización de la beata Ana de San Bartolomé (Testimonios selectos) (1630-1640)*. Edición preparada por Julen Urkiza y Félix Malaxetxebarria, Burgos 2010, 674 or. (BMC, 33); *Concordancias de los escritos de beata Ana de San Bartolomé. Volumen I: A-E*, Markina-Xemein 2011, 1-890 or. *Volumen II: F-O*, Markina-Xemein 2011, 891-1596 or. *Volumen III: P-Z*, Markina-Xemein 2011, 1597-2577 or.; *Itinerario del pensamiento y de los escritos de la beata Ana de San Bartolomé (1549-1626)*. (Recorrido bio-bibliográfico y temático a través de sus manuscritos), in: ABCT nº. 51 (Roma 2011) 649 or.; Ana de San Bartolomé, *Obras completas*. (Nueva edición revisada y aumentada por Julen Urkiza). Burgos 2014, 1712 or.; *Beata Ana de San Bartolomé. Su vida y su tiempo en España, Francia y Flandes (1549-1626)*, Roma 2015, 1276 pp. (Institutum Historicum Teresianum. Studia, 17); Ana M<sup>a</sup> RUIZ ZAPATA - Julen URKIZA, *Vida en imágenes de Ana de San Bartolomé*, Burgos 2016, 116 or.

Edith Stein edo santa Teresa Benedikta Gurutzekori dagokionez, bere idazlan guztiak argitaratu zituen beste lankide batzuekin: *Obras Completas* bost liburutan (Burgos-Madrid-Vitoria 2002-2007).

Karmengo Ordenaren errestaurazioari buruz lau liburu argitaratu zituen, eta gehienbat Markinarekin loturik daude: *Reimplantación del Carmelo Teresiano masculino en España. Documentación y correspondencia epistolar de los fundadores (1867-1882)*. 4 tomos, Roma 2007 (MHCT, 24-27).

elkarlanean prestatutako lana. Elkarlanean burututako beste zenbait lanen zuzendari izan da, esaterako, hauetan: *1491 Loiolako Inazio – Joan Gurutzekoa 1591*, Larrea-Zornotza, 1990, 511 or. KS-4); *Aita Gabirel Jauregi Uribarren (1895-1945)*, Markina, 1995, 512 or. KS-7); Santa Teresa Lisieuxkoa (*Idazlan guztiak. Testuak eta Azken Elkarrizketak*. Markina-Xemein, 1996, 1223 or. KS-8).

Liburuen Sortatik kanpo beste hauek argitaratu zituen: Augustin Zubikarai, *Bigarren errepublika denboraldiko idazlanak (1931-1937) eta Ondarroa. Egunkari eta aldizkarietako idazlanak*, Ondarroa 2009, 198 or.

Bere-bereak diren idazlanak ere argitaratu ditu: *Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak*, Larrea-Zornotza 1992, 936 or., KS-5 (Euskal idazketaren arduraduna: Patxi Uribarren); *Elizaren historia Euskal Herrian. I. Ikerlan materialak*. Markina, 1995, 1459 or., VS-1 (Euskal idazketaren arduraduna: L. Baraiazarra); *Aldizkari eta egunkarietako euskal bertso eta olerkien bibliografia*, Markina-Xemein 1999, 1740 or. (KS-11); *Karmel (Karmengo Argia, Karmengo Amaren egutegia, Karmel). Bibliografia osoa (1931-2007)*, Karmel 2008-2, 1-338.

Luis Baraiazarrarekin batera “Bidegileak” sortako lau liburuxka argitaratu zituen: *Santiago Onaindia (1909-1996)*, Vitoria 1998, 25 or., eta *Augustin Zubikarai (1914)*, Vitoria 1999,

---

Santa Teresari buruz: *Procesos de beatificación y canonización de la madre Teresa de Jesús*. Edición del quinto centenario preparada por Julen Urkiza, O. C. D. 6 tomos, Burgos 2015-2016 (MHCT, 35-40).

Eta Euskal Herriko karmeldarrei buruz: Julen URKIZA – Antonio UNZUETA – Ángel FERNÁNDEZ DE MENDIOLA, *Provincia carmelitana de San Joaquín de Navarra. Carmelitas en Euskal Herria (Siglos XIII-XX)*, Vitoria-Gasteiz 2005, 1012 or.; *Actas de los capítulos provinciales de la provincia O. C. D. de San Joaquín de Navarra (1879-1999)*. Edición preparada por Julen Urkiza, OCD., Roma 2018, 1053 pp. (MHCT, 33);

Eta Larreako komentuari buruz: *Los Carmelitas en Larrea. Tres siglos de vida e historia (1712-2012)*, Larrea 2012, 832 or.

25 or.; Lino Akesolo (1911-1991), Vitoria 2002, 25 or.; *Hipolito Larrakoetxea (1892-1976)*, Vitoria 2004, 25 or.; baita beste liburu hauek ere: *Gurutzeko Joan donea. +1591-1991. Artea – bizitza – gogoetak*, Larrea-Zornotza 1990, 112 or., eta *Karmeldarrak Euskal Herrian. Nafarroako San Joakim Karmeldar Probintzia. (XIII-XX. mendeak)*, Markina 2010, 309 or. (Karmel Lekukoak 5).

*Julen Urkiza*